

Pasaiaiko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu jendarte berdinzaleago bat helburu:

1.- Gobernantza alorrean:

Pasaiaiko Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren (2016-2020) eragina ebaluatzea eta aurrera urratsak zehaztea.

Udaleko arau, programa eta zerbitzuen genero-eraginaren ebaluazioa garatzeko tresnak sortzea.

2- Balioak aldatzea eta emakumeen ahalduntzea:

Pasaiaiko Emakumeentzako Jabetza Eskolaren ebaluazioa eta jarraipena, eta aurrera begirako urrats berrien ikerketa, hala nola: Emakumeen Etxea, eskaintza berriak...

Pasaiaiko jatorri askotariko emakumeen saretzea indartzea, horretarako espazioak bermatuz.

Nerabe eta gazteen arteko tratu onak, nesken ahalduntzea eta maskulinitate ez hegemonikoak sustatzeko ekimenak sustatzea.

3.- Indarkeria matxista desagerraraztea:

Indarkeria matxistari buruzko herritarren informazioa eta sentsibilizazioa handitzea.

Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei kalitatezko arreta eskaintzea.

Indarkeria Matxista bizi duten emakumeen arretaren hobekuntzarako erakundeen arteko jarduera eta koordinazio protokoloaren sinadura, mahaiaren egonkortzea eta jarraipena egitea.

Sexu heziketa eta indarkeria matxistari buruzko hausnarketa bultzatzea nerabe eta gazteen artean.

4.- Emakumeen parte-hartze soziopolitikoa sustatzea:

Toki-mailan, emakumeen erakundeekin eta erakunde feministekin etengabe komunikatzeko espazioak indartzea, kasu, Pasaiaiko Berdintasun Mahaia.

Udaletik abiarazten diren parte-hartze prozesuetan emakumeen parte hartzea ziurtatzeko tresnak martxan jartzea, bai jai eta ospakizunetan, bai hainbat Udal proiektutan...

Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskal Udalen Sarearekin – Berdinsarea – bat egiteko urratsak ematea.

5.- Bizitzaren iraukortasunaren aldeko ekinbideak indartzea:

Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta bermatzea, orain arte bezala, udal zerbitzuak egokituz eta indartuz.

Zaintza lanen feminizazioaren aurrean, “Zainduz zaindu” zaintzaileentzako asteroko gunearen jarraipena.

Azkenik, Udal honek herritarrei dei egiten die, Emakumeen Nazioarteko Egunaren kariatara Mugimendu Feministak martxoaren 8rako antolatu dituen mobilizazioetan era aktiboan parte har dezaten.